

**[GABON BELARRIZ, ABENDUZ]**

**AOB (C) bertsioa**

Gabon belarritz, Abenduz.  
Ez zait isildu, betiko Gabon  
—ari zait barruz—  
ari zait pozkida sortuz;  
  
Belengo gertakaria,  
gizaldietan barrenduz,  
beti ari da gertatuz  
espazioa grazia guztiz eta denbora zehartuz.  
  
Oraintxetasun bihurtuz,  
bertontxe Gabon  
bi besotxoak zabalduz  
zabal,  
  
zabal zabalik agertuz  
Jaungoikoaren amodioa  
modu maitakor  
maitetsuz.

---

**AOB - (B) bertsioa**

Gabon  
belarritz, Abenduz.  
Ez zait isildu, ari zait Gabon  
—ari zait barruz—  
ari zait pozkida sortuz.  
Belen santuko gertakaria,  
etorriari jarraituz,  
urrundik dator hurbilduz  
espazioa grazia guztiz eta denbora zehartuz.  
Oraintxetasun bihurtuz,  
bertontxe Gabon  
bi besotxoak zabalduz  
zabal,  
zabal zabalik agertuz  
Jaungoikoaren amodioa  
modu maitakor maitetsuz

---

**AOB - (A) bertsioa ^**

Gabon belarritz, Abenduz.  
Ez zait isildu betiko Gabon  
—ari zait barruz—  
ari zait pozkida sortuz;  
urrundik dator hurbiltasuna areagotuz,  
Belen santuko gertakaria  
etorriari jarraituz  
espazioa grazia guztiz zehartuz eta denbora  
oraintxetasun [sic] gauzatzuz  
bertontxe Gabon  
bi besotxoak zabalduz  
zabal,  
zabal zabalik Jaungoikoaren  
geureganako amodioa  
agertuz